

BEZ-AREN KONTABILIZAZIOA

1.- Obligazio onartuak

2.- Eskubide likidatuak

3.- Ordainketak

4.- Kobruak

5.- Hiruhilabeteko aitorpenak

6.- Urteko likidazioa

1. 1.160 euroko obligazio bat onartu da; horietatik 1.000 euro oinarri ezargarria dira eta 160 euro BEZa. Nola erregistratzen da eragiketa hori SAREKOn?

Eragiketa hori kontabilizatzeko modua eta, beraz, SAREKOn erregistratzeko modua eragiketan jasandako BEZaren izaerarekin lotuta dago. Bi kasu bereizten dira:

a) Jasandako BEZa ez da kengarria.

Kasu honetan, jasandako BEZak aurrekontu gastu handiagoa dakarkio udalari. Hortaz, SAREKOn, O eragiketa bat jaso behar da (edo ADO edo DO eragiketak, aurrez gastu baimenik ez badago), 1.160 eurokoa, hau da, eragiketaren zenbateko gordinari dagokiona.

Eragiketa hori Sarekon erregistratzen da, eta ez da sartuko inolako zenbatekorik BEZaren eremuan.

Ondare kontabilitatean ondoko idazpena kontabilizatuko da automatikoki, aplikazio informatikoaren taulen bitartez, erabiltzaileak batere parte hartu gabe.

1.160,00	(XXXX) Gastu kontua, taula ekonomikoaren arabera	
	(400X) Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekitaldia	1.160,00

XXXX kargu-kontua eragiketa egozten zaion aurrekontu kontzeptuaren arabera da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

b) Jasandako BEZa kengarria da.

Kasu honetan, jasandako BEZak ez du ekarriko aurrekontu gasturik eta ez du krediturik kontsumituko. Beraz, aurrekontuz kanpoko tratamendua eman beharko zaio.

Eragiketa hau erregistratzeko, Sarekon O eragiketa bat jaso behar da (edo ADO edo DO eragiketak, aurrez gastu baimenik ez badago), 1.000 eurokoa, hau da, eragiketaren zenbateko garbiari dagokiona. Kasu honetan, BEZaren zenbatekoa sartuko da bere eremuan (adibidean 160 euro).

Ondare kontabilitatean ondoko idazpena kontabilizatuko da automatikoki, aplikazio informatikoaren taulen bitartez, erabiltzaileak batere parte hartu gabe.

1.000,00	(XXXX) Gastu kontua, taula ekonomikoaren arabera	
160,00	(4720) Entitate publikoak. Jasandako BEZa	
	(400X) Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekitaldia	1.000,00
	(4100) BEZagatiko hartzekodunak	160,00

XXXX kargu-kontua eragiketa egozten zaion aurrekontu kontzeptuaren arabera da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

2. 2.320 euroko eskubide bat likidatu da; horietatik 2.000 euro oinarri ezargarria dira eta 320 euro BEZa. Nola erregistratzen da eragiketa hori SAREKOn?

Eragiketa hau Sarekon erregistratzeko, R eragiketa bat jaso behar da, 2.000 eurokoa, hau da, eragiketaren zenbateko garbiari dagokiona. Eragiketa hori Sarekon erregistratzen da, eta BEZaren zenbatekoa sartuko da bere eremuan (adibidean 320 euro).

Ondare kontabilitatean ondoko idazpena kontabilizatuko da automatikoki, aplikazio informatikoaren taulen bitartez, erabiltzaileak batere parte hartu gabe.

2.000,00	(430X)	Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekitaldia.	
320,00	(4400)	Zordunak BEZagatik	
	(XXXX)	Sarreraren kontua, taula ekonomikoaren arabera	2.000,00
	(4770)	Entitate Publikoak. BEZ jasanarazia	320,00

XXXX abonu-kontua eragiketa egozten zaion aurrekontu kontzeptuaren arabera da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

3. 1.160 euroko obligazio onartu bat ordaindu da; kopuru horretatik 1.000 euro oinarri ezargarria dira eta 160 euro BEZa. Nola erregistratzen da eragiketa hori Sarekon?

Lehendabizi, ordain aginduaren jaulkipena (ME) erregistratu behar da, eta aurreko O eragiketari emandako balioak jaso behar dira. Dirua diruzaintzatik irtetea SAREKOn diruzaintzaren zirkuituaren ohiko transakzioak erabiliz erregistratzen da eta, azkenik, ordain agindua burutu dela (P) erregistratuko da.

P eragiketa horrek ondoko idazpenak sortuko ditu ondare kontabilitatean, BEZaren izaeraren arabera. Bi kasu bereizten dira:

a) Jasandako BEZa ez da kengarria.

Ondare kontabilitatean ondoko idazpena kontabilizatuko da automatikoki, aplikazio informatikoaren taulen bitartez, erabiltzaileak batere parte hartu gabe.

1.160,00	(400X)	Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekitaldia	
	(TS)	Diruzaintza	1.160,00

TS abonu-kontua diruzaintzaren zirkuituan emandako balioen arabera da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

b) Jasandako BEZa kengarria da.

Ondare kontabilitatean ondoko idazpena kontabilizatuko da automatikoki, aplikazio informatikoaren taulen bitartez, erabiltzaileak batere parte hartu gabe.

1.000,00	(400X) Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekitaldia	
160,00	(4100) BEZagatiko hartzekodunak	
	(TS) Diruzaintza	1.160,00

TS abonua kontua diruzaintzaren zirkuituan emandako balioen arabera izango da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

4. Aurretik 2.320 eurotan likidatutako eskubide bat kobratu da; horietatik 2.000 euro oinarri ezargarria dira eta 320 euro BEZa. Nola erregistratzen da eragiketa hori SAREKOn?

Dirua diruzaintzan sartzea SAREKOn diruzaintzaren zirkuituaren ohiko transakzioak erabiliz erregistratzen da.

Aurrekontu kontabilitatean, lehenik eta behin, I eragiketa bat jaso beharko da, 2.000 eurokoa, hau da, eragiketaren zenbateko garbiari dagokiona. Eragiketa horri BEZaren zenbatekoa sartuko zaio bere eremuan (adibidean 320 euro).

Ondare kontabilitatean ondoko idazpena kontabilizatuko da automatikoki, aplikazio informatikoaren taulen bitartez, erabiltzaileak batere parte hartu gabe.

2.320,00	(TS) Diruzaintza	
	(430X) Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekitaldia	2.000,00
	(4400) Zordunak BEZagatik	320,00

TS kargu kontua diruzaintzaren zirkuituan emandako balioei lotuta egongo da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

5. Nola kontabilizatzen dira BEZaren hiruhilabeteko aitortpenak SAREKOn?

BEZaren hiruhileko aitortpenak haien emaitzaren arabera kontabilizatuko dira. Ondoko kasuak bereizten dira:

a) Ordaintzeko aitortpena

Baldin eta hiruhilabetean jasanarazitako BEZa handiagoa bada hiruhilabetean jasandako BEZ kengarriaren eta aurreko zergaldietako BEZ konpentsagarriaren arteko batura baino, aitortpena ordaintzekoa izango da.

Adibidez: demagun hiruhilabeteko BEZaren aitortpenak emaitza hau duela:

Hiruhilabetean jasanarazitako BEZa:	5.000,00
Hiruhilabetean jasandako BEZ kengarria	3.000,00
Aurreko zergaldietako BEZ konpentsagarria	500,00
Emaitza, ordaintzekoa	1.500,00

SAREKOn aitortpena kontabilizatzeko, ondoko eragiketak egingo ditugu:

a.1) Aitorpena OC dokumentu bakarraren bidez kontabilizatuko da. Honela:

Kargu bat egingo da hiruhilekoan jasanarazitako BEZaren zenbatekoa kitatzen duena.

Abonua egingo da ondorengoengatik: jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoaz, aurreko urtetik konpentsatzeko zegoen saldoaz (4700 kontua) eta 4750 "Ogasun Publikoa BEZagatik hartzekodun" kontuan diferentziaz:

5.000,00	(4770) Entitate publikoak. Jasanarazitako BEZa	
	(4720) Entitate publikoak. Jasandako BEZa	3.000,00
	(4700) Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun	500,00
	(4750) Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun	1.500,00

Idazpen hori egin eta gero, kitatuta agertu behar dute 4770 " Entitate publikoak. Jasanarazitako BEZa ", 4720 "Entitate publikoak. Jasandako BEZa" eta 4700 "Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun" kontuek.

a.2) Ogasunari zor zaion zenbatekoa ordaintzerakoan, MEE/PE eragiketa bat egingo dugu 4750 kontua erabiliz. Honako idazpena egingo du:

1.500,00	(4750) Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun	
	(TS) Diruzaintza	1.500,00

TS abonua kontua diruzaintzaren zirkuituan emandako balioen arabera izango da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

Idazpen hori egin eta gero, 4750 "Ogasun Publikoa BEZagatik hartzekodun" kontuak kitatuta agertu behar du.

b) Konpentsatzeko aitorpena

Baldin eta hiruhilekoan jasanarazitako BEZa txikiagoa bada hiruhilekoan jasandako BEZ kengarriaren eta aurreko zergaldietako BEZ konpentsagarriaren arteko batura baino, aitorpena konpentsatzekoa izango da.

Adibidez: demagun BEZaren hiruhilabeteko aitorpenak emaitza hau duela:

Hiruhilabetean jasanarazitako BEZa	5.000,00
Hiruhilabetean jasandako BEZ kengarria	10.000,00
Aurreko zergaldietako BEZ konpentsagarria	500,00
Emaitza, konpentsatzekoa	5.500,00

SAREKOn aitorpena kontabilizatzeko, ondoko OCa egin beharko da:

Hiruhilekoan jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoa kitatzen duen abonua, alde batetik, eta jasanarazitako BEZaren zenbatekoa kitatzen duen kargua, bestetik, bien arteko diferentziaz 4700 kontuan kargua eginez, aldi berean:

5.000,00	(4770) Entitate publikoak. Jasanarazitako BEZa	
5.000,00	(4700) Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun	
	(4720) Entitate publikoak. Jasandako BEZa	10.000,00

Idazpen hori egin eta gero, 4720 "Entitate publikoak. Jasandako BEZa" eta 4770 "Entitate publikoak. Jasanarazitako BEZa" kontuek kitatuta agertu behar dute. 4700 "Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun" kontuaren saldo zorduna, aldiz, bat etorriko da konpentsatzeko geratzen den zenbatekoarekin: adibidean, 5.500 euro.

6. Nola kontabilizatzen da BEZaren urteko likidazioa SAREKOn?

BEZaren urteko likidazioa (390 eredua) haren emaitzaren arabera konpentsatuko da. Ondoko kasuak bereizten dira:

a) Ordaintzeko aitorpena

Aurreko 5.a) apartatuan jasotakoaren arabera jokatu da.

b) Konpentsatzeko aitorpena

Aurreko 5.b) apartatuan jasotakoaren arabera jokatu da.

c) Itzultzeko aitorpena

Aurreko 5.b) apartatuan jasotakoaren arabera jokatu da.

Foru Ogasunak itzultzen duen momentuan, dirua diruzaintzan sartzea erregistratuko da, SAREKOn zirkuituaren ohiko transakzioak erabilita. Aldi berean, IE eragiketa bat kontabilizatuko da 4700 kontuan, itzultitako zenbatekoaz, eta idazpen hau sortuko da:

(TS) Diruzaintza	
(4700) Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun	

TS kargu kontua diruzaintzaren zirkuituan emandako balioei lotuta egongo da, baina edozein kasutan aplikazio informatikoak automatikoki beteko du.

Idazpen hori egin eta gero, 4700 "Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun" kontuak kitatuta agertu behar du.